

DARÍO DE REGOYOS

Bere prestakuntza, bizitza eta obra



Juan San Nicolás

**BILBOKO ARTE
EDERREN MUSEOA
MUSEO DE BELLAS
ARTES DE BILBAO**

Testu hau Creative Commons lizentziapean (mota: Aitortu–EzKomertziala-LanEratorririkGabe) argitaratu da (by-nc-nd) 4.0 international. Beraz, berau banatu, kopiatu eta erreproduzitu daiteke (edukian aldaketarik egin gabe), betiere, irakaskuntza edo ikerketarako helburuekin, eta egilea eta jatorria aitortuta. Ezin da merkataritza helburuetarako erabili. Lizentzia honen baldintzak <http://creativecommons.org/licenses/by-ncnd/4.0/legalcode> webgunean kontsultatu daitezke.



Ezin dira irudiak erabili eta erreproduzitu, argazkien eta/edo lanen egile-eskubideen jabeek berariazko baimena eman ezean.

© Testuenak: Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa-Fundación Museo de Bellas Artes de Bilbao

Argazki-kredituak

© Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa-Fundación Museo de Bellas Artes de Bilbao: 3.-27. ir

Argitalpena:

B'07 : Buletina = Boletín = Bulletin. Bilbao : Bilboko Arte Eder Museoa = Museo de Bellas Artes de Bilbao = Bilbao Fine Arts Museum, 3. zenb., 2008, 201.-255. or.

Babeslea:



Dario de Regoyos (1857-1913) gaur egun estimazio handiko margolaria da, batetik, bera izan zelako lehenengo inpresionista espainiarra, eta, bestetik, atmosfera eta argia jasotzen maisu handia izan zelako. Hala ere, jaio zenetik ehun eta berrogeita hamar urte joan direnean, haren nortasuna, pres-takuntza eta bizi zituen esperientziak ez dira behar beste ezagutzen, eta ezagutza horiek ezinbestekoak dira beraren obra ulertzeko eta obra bera motibatu zuten arrazoiak zeintzuk izan ziren jakiteko. Hori dela eta, urteurren honetan, berebizikoa da arlo horien gaineko hausnarketa bat egitea. Horretarako, Bilboko Arte Eder Museoa dagoen artista honen obren bilduma oparoa erabiliko dugu; izan ere, hogeita bost margolan daude bertan, eta, ondorioz, daudenen arteko garrantzitsuenetako bat da.

Ribadesellan (Asturias) jaio zen, baina ez dakigu gauza handirik haren umezaroari buruz. Dena dela, bada-kigu jakin nerabezaroa Madrilan eman zuela, Arguelles auzoan. Gazte independentea zen, eta ez zuen aitak ezarritako arauak betetzeko asmo handirik. Regoyosek, *Errege Jauregia* (c. 1878) [1. ir.] koadroaren kartoizko euskarriaren atzeko aldean lumaz idatzirik, urte haietako beraren pentsamendua eta ardurak jaso zituen [2. ir.]. Berak «Gazteluak Airean» izena jarri zion, eta beraren gustuak idatzi zituen, baita arkitekto izateko as-morik ez zeukala ere, beraren aitak horrela nahi zuen arren. Aitak matematikak ikasi eragin zizkion, nahiz eta beraren zaletasunak musika eta pintura izan. Musika berarengan gorde zuen 1890era arte (33 urte zituela); gitarra-jotzaile trebea zen. Bigarrena, pintura, beraren ogibidea izan zen. Baina, idatzi hartan, ezkutuan, ba-zegoen beste zaletasun bat ere: bidaiatzea. Hil zen arte bizi izan zuen zaletasuna hura, margotzeko ereduak bilatzeko egiten zuen, edo, azkeneko urteetan gertaut zen legez, osasun arazoak murrizteko. Baina, izan zuen mugikortasuna, bai ezkongaitan, bai ezkondu eta gero, ikaragarria izan zen.



1 eta 2. Darío de Regoyos (1857-1913)
Errege Jauregia, c. 1878
 Olioa kartoian. 18,5 x 27 cm
 Bilduma partikularra
 Aurrealdea eta atzealdea



Gazteluak airean. San Antonio de la Florida

Dena zor diot Chonchari¹. Berarekiko izan nuen maitasunak erabaki zuen nire karrera artistikoa, beti artearen zale handia izan banintzen ere, berarekin ezkontzeko nahiak aurreratu egin baitzuen karrera libre hau hartzeko aukera, denbora gehiegi ez emateko ezkongai. Musika eta pintura maite nituen, eta, froga gisa, kontzertu guztietara joaten nintzen eta zirriborroz betetzen nituen koaderno guztiak. Gainera, akuarela pintatzeko eta edozein musika-tresna jotzeko gogoia nuen, baina don Eduardok, irakasle gisa, gehiegikeriaz jokatzeko nirekin, eta urte osoak ematen genituen matematiketan eta sekula ere ulertu ez nituen beste gai absurdu batzuetan. Azkenik, antzarak ferratzera bidali nuen, eta San Fernandoko Akademian sartu nintzen pintura ikasteko asmoz. Beranduegi zen, konturatu nintzenerako Chonchak ez ninduela maite. Oso garai aspertua pasatu nuen, Madrildik ihes egin nahi nuen eta, ia beti, Floridako trenbide-pasagunera joaten nintzen paseoan, trenen irteerak eta makinaren maniobrak ikusteko asmoz. Imaginatzen nuen geltokirantz nindoala, tren hartzera. Leku hark nire maitasun asegabeak kontsolatzen zituen. Bidaia-proiektuak egiten nituen, eta inoiz ez nituen aurrera eramaten. Alfer-alferrik ibiltzen nintzen buruari bueltak ematen. Ezaxola jokatzeko nuen lagunekin, eta beraiek «hudo» deitzen ninduten. Ezin izaten nuen lorik egin, Madril betiko abandonatzeko moduarekin pentsatuz. Ama limurtu nuen, eta, ezin nuenez atzerrira joan, Madrildik aterarazi nuen, etxea bizkarrean hartu eta Aranjuezera joanez. Udazken eta udaberrietan, Aranjuezen geratzea zen asmoa; neguak Andaluzian pasatuko genituen, eta udak, berriz, atzerrian. Modu horretan, Choncha apur bat ahaztuko nuen, Argüelles auzoa bistatik galtzean. Espainian jarraitu genuen, finkak zaintzen. Eta atzerrira bizitzen joateko ideal ederra lortu ezinezko zerbaiten antzera ikusten nuen beti.

1 Choncha Jose de Echegaray dramaturgoaren alabaren izena da eta, antza denez, beraren lehenengo maitea izan zen.

Prestakuntza eta eraginak

Regoyos San Fernandoko Arte Ederren Akademian matrikulatu zen, bere aita Dario de Regoyos Molenillo 1876an hil eta gero. Amak matrikulatzen utzi zion, 1877-1878 ikasturtean, paisaia-oinarrizko atala ikasgai, Carlos Haes irakasle belgikarrarekin. Haren eskoletan marrazkia baino ez zuen ikasi, baina Belgikako artea zelakoa zen eta herrialde hartan Haesen irakaslea nor izan zen jakiteko aukera izan zuen. Beste alde bate-tik, Bruselako Errege Kontserbatorioan musikako ikasketak hobetzen zeuden Enrique Fernandez Arbos eta Isaac Albeniz lagunek hiri hartako giro artistikoari buruzko komentarioak eta goraipamenak egiten zizkieten. Horren guztiaren eraginez, Regoyosek Belgikara joan nahi izan zuen kosta ala kosta, eta 1879an lortu zuen joatea, lagunek harako gonbidapena egin baitzieten ikasturte amaieran eman behar zizkieten sariak zirela eta. Amak baimena eman zion Bruselara joateko eta, gero, bertan geratzeko.

Orduantxe hasi zen Regoyos gaztearen benetako margolari-prestakuntza, 21 urte zituela. Carlos Haes irakaslearen aholkuei kasu eginda, 1879-1880 ikasturtean Bruselako Arte Ederretako Errege Akademian matrikulatu zen, *Dessin d'après la tête antique* ikasgai, eta irakaslea Van Severdonc margolari belgikarra izan zen. Bertan ezagutu zituen bere lagun eta XXen Zirkuluaren kide sortzaileak izango ziren margolariak: Frantz Charlet, James Ensor eta Rodolphe Wytsman. Eskoleta haietan giza figuraren gaineko ikasketak hartu zituen; horregatik agertzen dira bere obretan horrenbeste erretratu, eta horrenbeste ijito, zahar, emakume edo behargin bere krokis-koadernoetan, eta bere paisaietan horregatik dago presente giza jarduera; hau da, paisaiak egiteak bakarrik ez zuen erakartzen.

Hileak aurrera egin ahala, gero eta gutxiago joaten zen Akademiako eskoletara, ez zuelako ordutegien eta arauen mende jarri nahi. Hala ere, prestakuntza osatzea erabaki zuen, eta Haesen irakaslea izan zen Joseph Quinaux² estudioarekin jarri zen hartu-emanetan, eta paisajismo eskolak eman zizkion 1880. eta 1881. urteen artean. Quinaux izan zen bere benetako maisua, eta Regoyosek berak halaxe utzi zuen idatzita 1910eko irailaren 25ean bere lagun, arte-kritikari eta Paueko Museoko zuzendari Paul Lafondi³ bidali zion gutunean. Bertan, bere motibazioak eta Quinauxengandik eta Haesengandik estimetan jakin zuena nabar-mendu zituen.

Regoyosen prestakuntzak bi bide horiek izan zituen, eta bere artea aberastu egin zen Bruselara heldu zenetik ezagutu zituen edo bizikide izan zituen artistekin izan zuen iritzi-trukeari esker. Haien artean arteetako meze-

2 Joseph Quinaux (Namur, 1822-Schaerbeek, Brusela, 1895), margolari paisajista belgikarra. 1876tik hil zen arte *Paysages et fleurs*-eko irakaslea izan zen Bruselako Arte Ederren Errege Akademian.

3 Regoyosen gutuna Paul Lafondi: «LAS ARENAS (BILBAO 25 de septiembre (1910) / Cher ami: / J'ai lu avec plaisir votre étude sur Carlos de Haes que j'aime beaucoup surtout la fin. Il y a des petites fautes que j'ai taché de corriger. Fournis n'est-ce pas Fourmis? Mais comment vous pouvez savoir tant des choses surtout de la vie intime des gens. Monastique de Pied au lieu de La Pied Torridoniens. Ces erreurs n'ont pas d'importance mais ce qui est plus important c'est son atelier de la Calle de Atocha ou il a vécu presque toute sa vie artistique et je crois qu'il est mort là. Quelques mois avant sa mort en 1898 je suis venu chez un ami à lui et voisin et m'a dit que Haes était toujours à la calle de Atocha. Je l'ai toujours connu là étant son élève très peu car je n'ai fait qu'un cours de dessin dans sa classe mais après je l'ai visité étant presque belge de passage à Madrid. Il était charmant homme et grand piocher mais vous avez raison en disant qu'il était plutôt un caractère qu'une personnalité. Ses gris sont toujours les mêmes monotones et la coloration ne donne pas la différence des pays. Quinaux aussi a été mon professeur à Bruxelles. Haes m'avait envoyé à lui quand j'étais jeune homme libre qui voulait connaître Bruxelles, la Flandre, la Hollande, voyager pensionné par ma mère. Quinaux m'a dit ne copiez jamais, le meilleur professeur c'est la nature allez à la campagne elle vous apprendra. J'ai profité de son conseil et aimant la liberté la boîte à couleurs la guitare j'ai profité trop de sa permission. De temps en temps je venais chez Quinaux et il disait aux autres élèves. Cet espagnol est un anarchiste de la peinture mais j'aime le laisser en liberté. Il me fait des signaux de chemin de fer rouges et verts au crépuscule et au milieu de la campagne désolée. En vérité c'est Quinaux mon seul professeur qui a duré. Haes ne compte pas pour moi je l'admire mais j'aimais le voyage et je l'ai quitté de bonne heure. Si Quinaux a duré chez moi c'est parce qu'il me laissait en complète liberté et parce que j'aimais la Belgique ou j'ai passé des années. En fin de Haes a été un vaillant en Espagne ou l'académie dominait absolument, il est venu au beau moment de faire comme vous dites très bien ou moment de conduire le paysage à la vie. / Bien a vous / Darío».



3. Darío de Regoyos (1857-1913)
Place à Segovia (Segoviako plaza), 1882
Olioa kartoian. 30 x 42,2 cm
Bilboko Arte Eder Museoa
Inb. zenb. 82/140



4. Darío de Regoyos (1857-1913)
Miss Jeanningen erretratua, 1885
Olioa mihisean. 65,5 x 85,5 cm
Bilboko Arte Eder Museoa
Inb. zenb. 00/1

nas handia zen Edmond Picard⁴, Emile Verhaeren⁵ poeta, Camille Lemonnier⁶ literatoa, Constantin Meunier eskultore-margolaria, Octave Maus idazle eta piano-jotzaile handia (XXen Zirkuluko zuzendaria izango zena) baita James Abbott McNeill Whistler, Theo van Rysselberghe, James Ensor, Frantz Charlet, Willy Schlobach eta Anna Boch margolariak ere.

Picardek ezarritako giroetan Regoyosek, Emile Verhaerenen laguntza handiarekin, sentsibilitate soziala eta artistikoa garatu zituen, eta hori argi eta garbi ikus daiteke 1886tik aurrera, *Espainia Beltza* serieko obretan. Giro horietan, Regoyos estimazio handian zeukaten artista guztiek, bere dinamismoagatik eta izaeragatik. Gitarra ere jotzen zuen giroetan, baita abesti herrikoi espainiarrak abestu ere, eta, ondorioz, batzarretan eta konferentzietan ohiko bihurtu zen. Ospe horren erakusgarri legez, Whistler, Van Rysselberghe, Meunier eta Ensor margolariak egin zizkioten hamaika erretratuak dauzkagu; gitarra jotzen agertzen da euren artean. Erretratuetako batean, mihisearen gainean, abesten zuen kopleto baten letra ere badago, Regoyosek berak esgrafiatuta.

L'Essor eta XXen Zirkulua

1881ean Regoyos L'Essor zirkuluko atzerritar bakarra zen. Zirkulu hori Belgikako berritzaileena zen, eta 1882an Regoyos erakusketetan parte hartzen hasi zen, Bruselan, Anberesen eta Ganten, hain zuzen ere. Zirkulu hartan, beraren ardura berberak zituzten beste margolari batzuk ezagutu zituen, eta, haiekin batera, XXen Zirkulu ospetsua sortu zuen 1883an. Zirkulu hori iraultzailea eta gogorra izan zen, eta artearen liberalizazioa zen zeukan helburua. 1894ra arte egon zen martxan, baina, urte hartan, kiderik gehienek horrela erabakita, zirkulua desegitea erabaki zuten, helburua lortu zutela sentitzen zuten eta. Zirkulu hartan prestakuntza osatu zuen eta heldu ere egin zen urtero hogeiki kideek eta hogeiki gonbidatuk⁷ zeukaten parte-hartzeari esker. Kritika artistikoak parte-hartzaileei egiten zizkien presioak jasan behar izan zituzten, haien obrei erasoak egiten zizkioten eta eten barik. Horrek batasun handiagoa eragin zuen kideen artean, eta aurrera jarraitu behar zutela erabaki zuten, euren ideiekin bat ez zetozenak eta obrak helburu komertzialetara bideratu nahi zituztenak zuzenean kanporatzen zituzten. Regoyosek ere izan zituen kritikak medioetan eta, besteak beste, beraren obrek formatu eskasa zutela eta musikaren aldean pinturarako dedikazio urria zeukala esaten zuten. Horregatik erreakzionatu zuen, eta urte haietan agertu ziren, inoiz baino gehiago, neurri handiko koadroak, nahiz eta beti nahiago izan zituen neurri txikiak, estudiotik irteteko eta ereduaren aurrean pintatzeko aukera ematen ziotelako.

Garrantzitsua da nabarmentzea XXen Zirkulua osatu zen lehenengo urteetatik James Abbott McNeill Whistler⁸ margolari amerikarrak obrak erakutsi zituela gonbidatu gisa, besteak beste, kide hauen oniritziarekin: Theo van Rysselberghe, Willy Schlobach, Regoyos, Verhaeren poeta eta Octave Maus. Horren ondorioz, adiskidetasun handia sortu zen euren artean eta, 1885ean, Schlobach, Verhaeren eta gure margolaria Lon-

4 Edmond Picard (Brusela, 1836-Dave, Namur, 1924), abokatu, literato, jurista eta kazetari belgikarra; *L'Art Moderne* aldizkaria sortzen lagundu zuen 1881ean eta aldizkari hartan XXen zirkulua defendatu zuen. Arteen mezenas legez jarduera nabarmena egin zuen. Senataria ere izan zen.

5 Emile Verhaeren (St. Amand, 1855-Rouen, 1916), idazle belgikarra, nazioartean ospe handiko poeta, Lovainako Unibertsitatean zuzenbidea ikasi zuen, eta bertako bizimodu literarioan parte hartze handia izan zuen. Edmond Picarden bulegoan lan egin zuen eta kolaborazioak egin zituen *L'Art Moderne* eta *La Jeune Belgique* aldizkarietan. Georges Eeckhoudek batera, *Le Coq Rouge* aldizkaria sortu zuen.

6 Camille Lemonnier (Ixelles, 1844-1913), idazle belgikar oso emankorra, arte-kritikaren bidez heldu zen literaturara. Belgikako Zola ere deitu izan zioten, naturalismoan zuen militantziagatik. Haren *Un Mâle* (1881) obra oso ospetsua egin zen artisten artean eskandalu handia eragin zuelako. Frantziako eta Belgikako aldizkarietan kolaborazioak egin zituen arteari buruzko gaietan.

7 Hogeita hamabi artista izan ziren XXen zirkuluko kide, eta abangoardistenak legez aukeraturako gonbidatuak ehun eta hogeita zortzi izan ziren, hamaika herrialdeetakoak. Horrek esan nahi du kideetako hamabi, gutxienez, kanporatu egin zituztela, eta zirkuluan batu ziren estiloen eta pentsatzeko moduen dibertsitatearen gaineko ideia bat ere ematen digu. Horri esker, Regoyosek urte haietan European zeuden joera guztien gaineko ezagutza handia lortu zuen, eta Espainiako artearen bilakaerarekiko zelako aldeko gogoa ikusi ahal izan zuen.

8 James Abbott McNeill Whistler 1834ko uztailaren 11n jaio zen Lowellen (Massachusetts), eta Londresen hil zen 1903ko uztailaren 17an.



5. Darío de Regoyos (1857-1913)
Argi elektrikoa. Aragoi, c. 1890
Olioa oholean. 31,8 x 21,2 cm
Bilboko Arte Eder Museoa
Inb. zenb. 82/133

dresera joan ziren bisitan. Regoyosek haien obra eta erretratuak ikusi ahal izan zituen, atseginez. Erretratu haietan andre ederrak agertzen ziren ispiluaren aurrean, batzuk ambientazio orientalistarekin, eta, zalantzarik gabe, horrek eragina izan zuen bere obra batzuetan. Horien artean, nabarmentzekoa da *Miss Jeanningen erretratu* (1885) [4. ir.]. Obra bikain hori Londresen margotu zuen, eta, koloreak eta ambientazio orientalista kontuan hartuta, zalantzarik gabe ikusten da margolari horren eragina izan zuela. Bertan, errealismoa erabili gabe, egileak atmosfera intimo batekin inguratu zuen eszena osoa; bertan, ispiluan islatzen den aurpegia inguratzen duen beloaren gardentasuna azpimarratu behar da, Whistler dakarkigulako gogora. Ez dakigu modeloa nor izan zen eta nola ezagutu zuen; haren izena baino ez dakigu, Miss Jeanning, egileak koadroari izen horixe eman ziolako 1885ean.

Bidaia hartan, Whistlerrek erretratu-zirriborro bat egin zion, eta horren berri *L'Art Moderne* aldizkariaren bitartez izan genuen. Baina, ikerketa asko egin diren arren, aldizkari hori ezin izan da aurkitu. Adiskidetasun



6. Darío de Regoyos (1857-1913)
Taureaux à Passages (Zezenak Pasaian)
 1898
 Olioa mihisean. 61,3 x 50,4 cm
 Bilboko Arte Eder Museoa
 Inb. zenb. 82/129

handi haren beste eragin bat hauxe izan zen: margolari amerikarrari XXen Zirkuluan sartzeko proposamena egin zieten lehen esandako kideek eta Frantz Charlet margolariak; hala ere, beste kideek ez zuten onartu, besteak beste, James Ensorrek, onartu beharreko artista berriak belgikarrak izan behar zirela ziotelako, eta margolari hori lar kontsokratuta zegoela ere bazioten.

Espainia Beltza eta puntillismoa

Esan dudan legez, 1886an Regoyosek *Espainia Beltza* seriea hasi zuen, hau da, espainiar gizarteko ohiturak eta kultura erakusten zuten gaiei eskainitako seriea, atzerrian Espainiak zeukan irudiaren guztiz bestelakoa zelako. Alderdi tristea eta gogorra erakutsi zuen, gizonezkoen jokaera kritikatu eta andrazkoen etsipen jasankorra goratuz, eurak zirelako tradizioaren eta familiaren eusleak. Serie honetan, zezenketetara joaten ziren pertsonen ergeltasunaren kritika ere bazegoen, izan ere, zezenketaren artea ondo ezagutu gabe, ikuskizuna eta zezenak toreatzailea harrapatu ahal zuela baino ez zitzairen interesatzen. Profesionalen ahaleginak eta balioak, eta zezenketetako beste biktimak –esate baterako, zaldiak– ez zituzten kontuan hartzen. *Espainia Beltzeko* obrek euskarri handi bat izan zuten Emile Verhaeren poetarengan. Regoyosek bidaiari egin zuen lehenengoz Vehraerarekin Espainian zehar 1888an, eta urte hartan gertaera triste bat jazo zen bientzako: hilabete gutxiren aldearekin, bien amak hil ziren. Horren ondorioz, poetak idatzitako testuak erabili zituen gure margolariak urte batzuk geroago, 1899an⁹, liburu bat argitara emateko, *España Negra*. Testu horiek

⁹ *España Negra* liburuak Kataluniako Luz aldizkarian eman zen argitara aurretiazko edizio legez 1898an, eta 1899an Pedro Ortega inprentan, Bartzelonako Aribau kaleko 13.ean zegoena. Edizio horrek hogeita zazpi marrazki erreproduzio dauka eta zazpi boj xilografia, Regoyosek berak marraztuak eta landuak. Liburuak salmenta eskasa izan zuen, Regoyosen esanetan, hamabost ale baino gutxiago.




7. Darío de Regoyos (1857-1913)
L'église de Lezo. Pays Basque (Lezoko eliza. Euskal Herria), 1898
 Olio mihisean. 61 x 50,5 cm
 Bilboko Arte Eder Museoa
 Inb. zenb. 82/134

bere bizipen batzuekin osatu zituen, eta bidaia hartan egin zituen grabatuak, marrazkiak eta binetak gehitu zizkion. Regoyosek, kasu hartan, urte haietan Frantzia eta Belgika oso ohikoa zen jardura kopiatu nahi izan zuen, hau da, ospe handiko poetek, literatoek eta idazleek idatzitako liburuak argitaratzea margolari eta grabatzaile nabarmenen binetekin, frontispizioekin eta grabatuekin. *España Negra* era horretako lehenengo liburua izan zen Espainian, eta zalantzarik gabe 98ko Belaunaldiaren obra aitzindari bat izan zen.

1898an eta 1899an Regoyos hainbat bider joan zen Bartzelonara, liburu hau argitaratzeko zeukan interes handiaren eraginez eta *Luz* aldizkariaren zuzendari teknikoaren lanak egiteko, orduantxe izendatu zuten-eta kargu horretarako. 1894tik aurrera, Regoyosek babes izugarria aurkitu zuen modernista kataluniarren artean, eta urteen joanean ere gorde zuen babes hori. 1899an izan zuen babes horrek goraldirik handiena, liburua argitaratu zenean, Els Quatre Gats-en «La Sala Gran» (Sala Handia) inauguratzeko antolatu zioten erakusketari esker. Erakusketa hartan serie horretako obrak baino ez ziren erakutsi. Erakusketa hartara Pablo Picasso margolari gaztea ere joan zen, talde kataluniarreko kidea bera ere, eta Regoyosek margotzen zituen emakumezkoen siluetak eta jarrerak ikusi izan ahal zituen, baita *Jaiaren biktimak*¹⁰ izeneko *grattage*ko zaldi hilak ere, eta horiek bat egingo zuten gero bere aro urdineko emakumeen ideiekin edo bere tauromakia batzuetako zaldienekin.

España Beltza osatzen duten obrak olioak, akuarelak, pastelak, marrazkiak, *grattage*ak, akuaforteak, litografiak eta xilografiak dira, eta hamarkada batean bata bestearen atzetik egindakoak dira –1896. urtera

¹⁰ *Jaiaren biktimak* grattage-a (1894; 31 x 45 cm), Mollet del Vallesen (Katalunia) dagoen Abello Margolariaren Museo Etxearen jabetzakoa, *España Negra* liburua erdiko orrialdea izan zen. Izenburu bereko obra egiteko zirriborroetako bat ere izan zen, pastela paperaren gainean eta 90 x 120 cm neurrikoak.



© Babestutako materiala

8. Darío de Regoyos (1857-1913)
Bainua Erreterian, 1900
Olioa mihisean. 76,5 x 57,5 cm
Bilboko Arte Eder Museoa
Inb. zenb. 82/146



9. Darío de Regoyos (1857-1913)
Mirakruzerako bidea, c. 1900
 Olioa mihisean. 66 x 43,5 cm
 Bilboko Arte Eder Museoa
 Inb. zenb. 82/141

arte—; hala ere, obra preinpresionistak, inpresionistak eta puntillistak ere egin zituen. Urte batzuk geroago, *Espainia Beltzeko* gaiei buruzko piezak agertu ziren, baina, noizean behin bakarrik, *Ostiral Santua Gaztelan* (1904) olioia, esate baterako [10. ir.]. Kasu honetan, tradizio erlijiosoaren modernotasunarekin konbinatu zuen. Kontraste ikusgarria izan zen, garraio publikorako sistema hori oso berria zelako eta, beraz, gure gizarte aurreindustrialeko gauzarik aurreratuena goizaldeko prozesio baten bakardadearen eta antzinakotasunaren aurrean, nazarenoak eta Ama Birjinaren pasaera baino ez daudelako, eta makinistek kuriositatez begiratzen diete eta trena astiro-astiro daramate haien baitaratzea ez aztoratzeko. Olio hau Pancorbo inguruetan margotutakoa da.

Beste alde batetik, 1887an, Georges Seurategi bere obra nagusia erakutsi zuen XXen Zirkuluan, *Un dimanche d'été à l'île de la Grande Jatte* (1886). Erakusketa hark nahasmen handia eragin zuen artista belgikarren artean eta Zirkuluan puntillismoaren aldeko talde bat sortu zen¹¹, margotzeko modu horren berritasunak erakarrita. Talde horren burua Van Rysselberghe izan zen, eta bertan zegoen gure margolaria ere. Puntillismoa guztiz arbuia zuten arte-kritikari belgikarrek, eta margolariei eta obrei era guztietako satirak egin zizkieten, baina hori ez zen mira egitekoa, teknika hori akademizismoaren desbideraketarik handiena zelako eta urte haietako berritzaileena zelako. Zirkuluaren barruan ere banaketa eragin zuen, puntillistak abangoardistenak zirelako gainerako kideen aurrean.

Talde horren sorreraren eraginez, margolari inpresionista frantziarrekiko hartu-emanak gehiago estutu ziren, eta Paul Signac XXen Zirkuluko kide egin zen. Horri eskerrak, Regoyosek puntillismoaren prestakuntza zuzen-zuzenean Signacengandik hartu ahal izan zuen. Signacekin hartu-eman handia izan zuen Regoyosek; beraren itsasontzian (*Olympia*) ere bidaiatu zuen, Van Rysselberghekin batera, Landetatik Kosta Urdinera, Garonako kanala igarota.

11 Pintura optikoaren alde zeuden XXen zirkuluko margolari kideen taldea hauek osatu zuten: Anna Boch, Frantz Charlet, Willy Finch, Darío de Regoyos, Jan Toorop, Henry van de Velde, Theo van Rysselberghe, Guillaume Vogels eta Georges Lemmen.

Regoyosek 1892 eta 1895. urteen artean baino ez zituen egin koadro puntillistak, egikera arretatsua eskatzen duelako, eta hori beraren izaera dinamikoaren kontrakoa zen, ikusten zituen inpresioak ahalik eta arinen harrapatu behar zituen eta. Margotzeko modu horrek, gainera, estudioan luzaroan egon eragiten zion, eta, ondorioz, azkenerako, teknika hori alde batera uztea erabaki zuen, nahiz eta gero partzialki erabili izan zuen bere obretan kalitatea eta ehundura hobetzeko; hori jazotzen da hauetan: *Zezenak Pasaian* (1898) [6. ir.], *Bainua Erreterian* (1900) [8. ir.], *Mirakruzeko bidea* (c. 1900) [9. ir.], *Maiatzeko goiza* (1907) [16. ir.] eta *Daxeko ikastetxea* (1909) [19. ir.]. Horietatik, *Bainua Erreterian* azpimarratu behar da. Regoyosen obrarik inpresionistenen artean kokatu behar da, bai koloreen aukeraketagatik (beraren helduarokoak), bai gaiarengatik, aske dabilzan ume batzuk ibaian sartzen diren paisaia bat aukeratu zuelako, urte haietako hainbat eta hainbat eszena inpresionistatan legez, izan ere, naturarekin lotutako biluztasuna haustura eta modernismo sinboloa ziren. Egikera ere inpresionismoaren berezkoa da iluntzeko argiak eta gerizak lotzeko moduagatik. Bertan, lehenengo plano berdea eta ibaia eta zeru urdinaren eta gazteen islak nabarmentzen dira. Regoyosek bere egiten jakite puntillista ezin hobeto darabil lurraren kolorea lortzeko, baita larra berdea eta mugimenduan dagoen uraren kolorea lortzeko ere, ezker-eskuin arbolaz inguratutako marko batean eta goiko parteko adarrekin eta zeruarekin itxita. Ikuspegi honetan, eszenaren definizioa eta tonuak lehenengo planotik horizontera graduatzen doa, sakontasuna eta harmonia emateko. Gauza bera jazotzen da *Daxeko ikastetxea* obran ere. 1909an margotu zuen hiri horretan; familia osoarekin joan zen bertara. Lehenengo planoan Regoyosek trataera puntillista berbera darabil lurra, itxitura hesia eta eremu berdea egiteko, eskolako jolasaldia girotzeko, eta, bertan, zalantza barik, bere lau seme-alabetako batzuk zeuden. Regoyosek hiriko eszena horretan eraikin pilaketa, eliza izanik handiena, eta eskola eremua eta inguratzen duten arbolak batzen ditu lainoz beteriko zerupean. Eszena osatzeko, kolore zuriak, urdinak eta malbak darabiltza.


Beste alde batetik, garrantzitsua da azpimarratzea Regoyos margolari puntillisten taldeko espainiar bakarra izan zela, eta Georges Seuran hil zenean, familiak margolari propuntillistei emaniko obretako bat jaso zuen. Obra horren izenburua *Trois dos*¹² da, eta, geroago, ez dakizkigun arrazoiak tarteko, Paul Signacen jabetzara pasatu zen.

1893an XXen Zirkulua desegin ostean, beste zirkulu bat sortu zen, *La Libre Esthétique* (1894-1914). Bertan, artista gonbidatuak eta arteaz kanpoko kide babesleak egon ziren. Zirkulu hartan, Regoyosek bost erakusketa egin zituen gonbidatu gisa, baina Bruselara joan gabe. Hala ere, erakusketak beste herrialde batzuetara ere eramán zituen, Frantziara eta Alemaniara esate baterako, eta lantzean behin joan ere joaten zen herrialdeotara. Esan liteke 1893. urtetik aurrera, artistikoki, Espainiara bueltatu zela; ordura arte ez zuen erakusketarik egin nahia izan Espainian, batez ere Madrilen, organo arautzaile nazionaletan nagusi zen klasizismoagatik. 1882tik aurrera, Regoyos Euskal Herrian bizi izan zen, eta noizbehinka Bruselan; margolari bezala Espainiara bueltatu zenean, Bruselan izan zituen arazo berberen kontra borroka egin behar izan zuen. Bruselan, kideekin batera, arrakastaz lortu zuen artea liberalizatzea, baina hemen bere borroka latzagoa izango zen, izan ere, Pirinioek balazta jartzen zioten joera berrien etorrerari.


Bere prestakuntza sasoia orduantxe amaitu zela esan daiteke. Orduan, bera hasi zen Euskal Herrian ezagutu zituen margolariei laguntzen. Eskuzabaltasun osoz egin zuen lan haiekin, elkarteak sortzen eta erakusketak antolatzen. Komunikabideetan euren ideiak defendatzeko eta nagusi zen klasizismoari aurre egiteko esan zien. Espainian, Madrilen, Bartzelonan, Bilbon eta Donostian egin zituen erakusketak; atzerrian, berriz, Parisen, Bruselan, Frankfurten, Dresden, Amsterdamen, Venezian, Buenos Airesen eta Mexikon.

12 Regoyos banaketaren aldeko taldeko kidea zela adierazten duten erreferentziak eta Seurat familiak dohaintzan emandako obraren datuak hemen daude: César M. de Hauke. *Seurat et son oeuvre*. Paris : Gründ, 1961, I. libk., XX. eta 122. or.

© Babestutako materiala



10. Darío de Regoyos (1857-1913)
Vendredi Saint en Castille (Ostiral Santua Gaztelan), 1904
Olioa mihisean. 81 x 65,5 cm
Bilboko Arte Eder Museoa
Inb. zenb. 82/130



11. Darío de Regoyos (1857-1913)
Urumea, 1904
Olioa mihisean. 61 x 50 cm
Bilboko Arte Eder Museoa
Inb. zenb. 82/139

Bilakaera estilistikoa

Laburbilduz, hauek izan ziren Regoyosen obretako gaiak: paisajismoa, trenak, monumentu historikoak (zubiak, gazteluak, komentuak, monasterioak eta elizak), hurbileko pertsonen erretratuak edo gizarte ereduak, argi efektuak, egunez zein gauez, eta barruetako eszenak. Gutxien egin zituen gaiak natura hilak izan ziren. Bere egikeraren eta kolore-paletaren bilakaerak ez zuen inoiz ere tematikatik aldatu, izan ere, beti margotu zuen benetan gustatzen zitzaiona, komenigarritasun komertzialetik urrun beti. Gorroto zituen *trompe l'oeil*-ak, eta gurago zituen ohar espontaneoak eta zintzoak.

Hasieran, bere obran motibo belgikar batzuk agertu ziren, baina batez ere motibo espainiarrak erabili zituen, Bruselako zirkuluetan (1890era arte bertan baino ez zituen egiten erakusketak) bere herrialdea erakutsi nahi balu legez, baina interpretatzeko bere modu pertsonalean. Hasierako urteetatik laurogeita hamarreko hamarkadaren hasierara arte espatula erabili zuen beti, eta gero hasi zen pintzela erabiltzen, 1892an puntillismorako pausoak egin zituenean, hain zuzen ere. Antzeko aldaketa izan zuen erabilitako paletak ere. Hasieran, kolore urdinak, horiak, zuriak eta berdeak biziagoak ziren, eta malba kolorea ia agertu ere ez



12. Darío de Regoyos (1857-1913)
Aurrekua euripean Arrasaten, 1905
 Olioa oholean. 34 x 46 cm
 Bilboko Arte Eder Museoa
 Inb. zenb. 82/128



13. Darío de Regoyos (1857-1913)
Lermako hiria, 1906
 Olioa oholean. 31,7 x 41,2 cm
 Bilboko Arte Eder Museoa
 Inb. zenb. 82/132

zen egiten; argi ikus liteke hori *Place à Segovia* (1882) [3. ir.] obran. XIX. mendearen amaieran agertzen diren behin betiko koloreak argiagoak eta suabeagoak dira, eta malbak eten barik agertzen dira. Lehenengo garaia amaiera aldeko (aldaketa baino apur bat arinago) koloreen eta behin betikoen arteko trantsizioa ikusteko obra hauek konparatu daitezke: 1898an margotutako *Lezoko eliza. Euskal Herria* [7. ir.] eta *Zezenak Pasaian* [6. ir.], *Mirakruzeko bidea*, 1902. aldean margotua [9. ir.], *Urumea*, 1904an [11. ir.] eta *Daxeko ikasketxea*, 1909an [19. ir.] obrekin. Aldaketa hori Frantzia erakusketa gehiago egiten hasi zenean gertatu zen eta inpresionista frantziarrekin bat egin zuenean, batez ere Camille Pissarrokekin eta Maximilien Lucekin, laurogeita hamarreko hamarkadaren amaieran.

Camille Pissarrok hartu-eman handiak izan zituen Regoyosekin, eta margotzeko moduari eta gai ei buruzko gomendioak eman zizkion. Hartu-eman haiek ugaritu egin ziren 1896an bere seme Georges Manzana Pissarro¹³ gaixotu zenean. Azkeneko hori Londresen bizi zen anaia Felixekin (Titi), eta, erabat osatzeko, bizilekua aldatu behar izan zuen. Aitak Donostiara joan zitekeela erabaki zuen, anaiarekin batera, klimarik egokiena bertan zegoelako, eta anaia biak Regoyosen tutoretzapean geratu ziren. Pissarrok gure artistaren gainean zituen

13 Georges Manzana Pissarro (Louveciennes, 1871-Menton, 1961), margolaria, akuarelista eta grabatzailea, Camille Pissaroren bigarren semea. Felix Pissarro (Pontoise, 1874- Londres, 1897), margolaria, grabatzailea eta karikaturlista, Camille Pissaroren hirugarren semea.



14. Darío de Regoyos (1857-1913)
Santa Luzia. Durango, 1907
 Olioa mihisean. 65 x 55,3 cm
 Bilboko Arte Eder Museoa
 Inb. zenb. 82/131

iritziak Georges 1897ko martxoan¹⁴ bidali zion gutunean geratu ziren jasota, eta Regoyosek ere izan behar izan zuen iritzi haien berri. Zorritzarrez, Pissarroren eta Regoyosen arteko gutun-trukea ez da kontserbatzen, izan ere, gerra zibilean galdu egin ziren Regoyosen familiak zituen gutunak. Jaso zituen aholkuen ondorioz, eta aldatu egin behar zuela konbentzituta, behin betiko abandonatu zuen berak pintura neurastenikoa deitzen zuena (*Espania Beltza* serieari buruz) eta buru-belarri sartu zen pintura inpresionistan, zuzen-zuzenean naturatik hartuta, inpresionistenetik hurrago zeuden koloreak erabilita. Pauso horiek lehenago ere eman zituen nolabait, baina aholkuokin sendotu egin zituen.

14 Camille Pissarrok bere seme Georges Manzana Pissarri bidalitako gutuna: «Paris, 1 rue Drouot / 17 mars 1897 / Mon cher Georges: / Ci-inclus quatre cents francs que j'ai pu avoir plus tôt en ayant déjà demandé pour payer ma quinzaine ici. C'est terriblement cher, j'ai pour mille francs par mois sans faire d'extras que le vin et le bois indispensables; heureusement que mes tableaux marchent et se finissent, mais ces diables de gris des rues de Paris sont tellement difficiles à faire qu'il faut y revenir longtemps. Et dire que Durand Ruel n'aime que les effets de soleil! Et justement hier, il me disait à propos des tableaux de Darío que c'était triste et gris, que c'était plus difficile de faire du soleil, je t'en fiche! On voit bien qu'il n'a jamais mis la main à la pâte. Darío a mal choisi ses tableaux, l'orage, la rue de Londres, le coup de vent avec l'église, etc., sont d'anciennes choses qui ne sont pas réussies au point de vue de l'air. C'est des tableaux faits à l'atelier qui manquent d'imprévu et d'intérêt, mais trois ou quatre récentes choses dénotent un tempérament de peintre, seulement, c'est vraiment trop peu. Mais il n'a donc pas fait de plus grandes choses sur nature? Nous avons causé longuement des tableaux d'atelier, je lui ai dit qu'il fallait joliment être fort pour les faire et même avec ces grandes qualités, on n'a pas l'imprévu et l'originalité sans recherche, du moins à mon sens. Il y a évidemment des peintres comme Delacroix qui l'ont fait, mais cela n'est certes pas si beau qu'une belle figure de Corot. J'ai vu dernièrement une figure ancienne de Corot admirable. Cela fait beaucoup de rapport avec les figures de Lucien par la naïveté, le dessin simple et précieux, mais avec une couleur grise étonnante, peinte grassement!... Darío vous fait dire bien des choses, l'ouverture de son exposition a lieu le 19 et il repart le 20 courant. / Je vous embrasse, écrivez-moi. / Votre père affectionné. / C.Pissarro».



15. Darío de Regoyos (1857-1913)
Elorrio, 1907
 Olioa oholean. 26,7 x 35 cm
 Bilboko Arte Eder Museoa
 Inb. zenb. 82/127



16. Darío de Regoyos (1857-1913)
Maiatzeko goiza, 1907
 Olioa mihisean. 56,2 x 42,7 cm
 Bilboko Arte Eder Museoa
 Inb. zenb. 82/147



17. Darío de Regoyos (1857-1913)
Peñafielgo gaztelua, 1908
 Olioa kartoian. 27 x 35 cm
 Bilboko Arte Eder Museoa
 Inb. zenb. 82/148



18. Darío de Regoyos (1857-1913)
Merkatuaren amaiera Daxen, 1909
 Olioa mihisean. 50 x 61 cm
 Bilboko Arte Eder Museoa
 Inb. zenb. 82/135

1894-1913: gaien ugaritasuna

Darío de Regoyos oso-osorik ulertu ahal izateko, ezinbestekoa da ulertzea bere etengabeko bidaietarako eta egoitza aldaketetarako arrazoiak ere. Lehenengo aroan, 1894ra arte, artean ezkongai zela, egoitza aldatetak ez ziren oso ohikoak, baina bai bidaiak. Bidaiak, batez ere, kontu kulturalak eta artistikoei eragindakoak ziren; hala ere, osasun arazoak izan zituen nerbioen ondorioz, urdaileko arazoak, hain zuzen ere; eta, ondorioz, mugatu egin behar izan zituen lekualdatzeak, baita beraren margolari eta erakusle jarduerak geldiarazi ere. Horixe pasatu zitzaion 1891n, hau da, erakusketarik egin ez zuen urte bakarrean. Espainian zehar egin zituen bidaietan, Euskal Herria, Gaztela, Leon, Andaluzia, Levante, Aragoi, Galizia, Toledo, Iruñea, Asturias, Bartzelona eta Madril bisitatu zituen; atzerrian, oster, Belgikan, Herbehereetan, Frantzia, Italian eta Marokon (Tanger) egon zen. Lau bidaia artistiko ere egin zituen, lehenengoa beste margolari eta arte-kritikari batzuekin batera, eta beste hirurak Emile Verhaeren poetarekin. Verhaerenekin Espainian, Londresen, Frantzia hegoaldean eta Italian (Florentziaraino) egon zen. Bidaia horietan, Regoyosek gaur egun Bilboko Arte Eder Museoarenak diren obra batzuk margotu zituen: aipatutako *Place à Segovia* (1882) [3. ir.] eta *Miss Jeanningen erretratua* (1885) [4. ir.], eta *Argi elektrikoa. Aragoi* (1890) [5. ir.].

Argi elektrikoa, Aragoi olioak (sinaduraren kaligrafia eta erreferentziatzko lekua kontuan hartuta, 1890. urte inguruan ezarri liteke, Regoyos Zaragozara eta Aragoiko Pirinioetara joan zenekoa, bere ahizpa bakarra, Amalia, bertan bizi zen eta) Regoyosek argindarra Espainiako herrietara heldu zela erakusteko zeukan interesa erakusten digu. Gai hori bere obretako batzuetan agertzen da, eta, horietan, argi berriak ingurua lilurtzen du. Obra honetan, argi eta garbi ikusten da inguru-argiztapena, atzeko fatxadara zelan heltzen den, geriza zorrotzagoekin, bai berezkoak bai gurdiek, arbolek eta bankuak egindakoak. Nabarmentzeko modukoak dira arbolak eraginak, intentsitatearen aldakortasuna lurrean eta gurdia margotzeko daukan zorrotasuna. Margo testimonial baten aurrean gaude gaiari dagokionez, protagonistak argia eta bakardadea diren eszena baten aurrean.



19. Darío de Regoyos (1857-1913)
Daxeko ikastetxea, 1909
 Olioa mihisean. 57,5 x 44,5 cm
 Bilboko Arte Eder Museoa
 Inb. zenb. 82/143

Regoyos 1895ean ezkondu zen. Hala ere, bidaiatzen jarraitu zuen. Bestalde, bizilekua ere sarri aldatu zuen, batzuetan inguru artistiko berriak bilatzeko eta, besteetan, familia kontuengatik edo gastuak murrizteko (alokairua, arazoak eraikinarekin eta abar). Azkenerako, aldaketak osasun arazoengatik egin zituen, bai berarenengatik bai andrearen arazoengatik. Klima onberagoak behar zituzten, hotza, umeltasuna eta haizea leunagoak ziren lekuak, horregatik joan ziren Granadara eta Bartzelonara, eta lekuotako bakoitzean hamar bat hilabete egin zituzten.

Bigarren sasoi hartan, 1894. eta 1913. urteen artean, Regoyosek hauek guztiak bisitatu zituen: Euskal Herria, Andaluzia, Asturias, Valentzia, Salamanca, Gaztela, Leon, Madril, Toledo, Kantabria, Iruñea eta Bartzelona. Emile Verhaeren poetarekin beste bidaia bat ere egin zuen 1901ean; Euskal Herrira, Gaztelara, Toledora eta Nafarroara joan zen. Dena dela, bizileku aldaketak garrantzitsuagoak izan ziren. Harrigarria da ikustea bere familiak zelan jasan ahal izan zuen horrenbeste lekualdaketa, izan ere, egunerokotasuna goitik behera aldatzen zitzairen, seme-alaben eskola, mudantza, eta, batzuetan, etxe bi ere izan behar izaten zituzten zabalik, horrek zekartzan gastuekin.

Regoyosek, 1896an 39 urte zituen, ezkondu berri zegoen¹⁵ eta alaba bat jaio berri zitzaion. Egoera ekonomikoa ordura arte oso ona izan bazen ere, galera handia izan zuen obren salmenta eskasaren edo hutsalaren ardurarik ez hartzeagatik eta artean zintzotasuna eta idealak defendatzeagatik. Ondorioz, urte luzez diru-sarrera barik bizi izan zen. Ezkontzako gastuei bizileku aldaketenak, etengabeko bidaienak, margotzeko materiala erostearenak, markoenak, mihiseak erakusketetarako Espainia barrura eta kanpora garraiatzekoak, aduana

¹⁵ 1895eko urriaren 19an Regoyos Begoñako Ama Birjinaren basilikan ezkondu zen Henriette de Montguyon y Vingart andrearekin, Montguyoneko kondearen alabarekin. Henriette Frantzian jaio zen 1876ko maiatzaren 1ean, eta Regoyos baino hemeretzi urte gazteagoa zen. Lehenengo alaba Isabel Regoyos izan zen, Donostian jaioa 1896ko urriaren 27an.



20. Darío de Regoyos (1857-1913)
San Vicente de la Barquera. Hondarrak, 1910
 Olioa mihisean. 50 x 61 cm
 Bilboko Arte Eder Museoa
 Inb. zenb. 82/138



21. Darío de Regoyos (1857-1913)
San Vicente de la Barquera. Gaztelua, 1910
 Olioa oholean. 35 x 55 cm
 Bilboko Arte Eder Museoa
 Inb. zenb. 85/314

gastuak eta abar gehitu behar zaizkie, eta, ondorioz, Regoyosen ondareak galera izugarria izan zuen. Jarraian, eta garrantziaren arabera, egin zituen bizileku aldaketak laburbilduko ditugu.

Donostian sei helbide izan zituen 1894. eta 1900. urteen artean eta 1902ko abendutik 1907ra arte. Hauek izan ziren ordena kronologikoan: Hernani kalea 1, nagusia ezk.; Etxague Jenerala kalea 14, 3.a; San Martin kalea 2; Paloma txaleta (Ategorrieta); Mujika Enea kalea (Jai Alairen atzean), eta Trueba kalea 8 (Gros auzoa).

Irunen, bat: Buenavista, 1900eko uztailetik 1902ko azarora.

Durangon, bi: Artekalea 6, 1905ean, eta Olmedal 46, 1907an.

Bilbon, bi: Espartero kalea 22, 1907ko irailetik 1908ko urtarrilera, eta Geltoki kalea, Areetan, 1908ko otsailetik 1913ra. Epe hartan beste bizileku batzuk ere izan zituen, baina helbide hau izan zuen nagusi.


Daxen, bat: Boulevard de la Marine 38 (Chez M. Daleau), 1909ko martxoan.

Ontanedan, bat: Isidro Martinez etxea, 1910eko uda.

Granadan, bat: Mariana plaza 15, 3. ezk., 1910etik 1911ra.



22. Darío de Regoyos (1857-1913)
Natura hila, c. 1910
 Olioa mihisean. 66,5 x 81 cm
 Bilboko Arte Eder Museoa
 Inb. zenb. 82/136




23. Darío de Regoyos (1857-1913)
Bilboko itsasadarra, c. 1910
 Olioa mihisean. 49,1 x 208,5 cm
 Bilboko Arte Eder Museoa
 Inb. zenb. 94/12

Bartzelonan, bi: Unibertsitatea kalea 11, 1911tik 1912ra, Figuerola plaza 4 (San Gervasio) (bertan hil zen artista), 1912tik 1913ra.

Bizilekutik kanpo, andrearekin eta seme-alabekin batera, egonaldi luzeak egin zituen Daxen, Granadan, Ontanedan eta Bartzelonan, hau da, hamabost etxe aldaketa partzial edo oso; hori horrela, Dariok familia-mugikortasun oso handia izan zuen. Horrek erakusten du emazteak zenbat lagundu zion, etsita onartu egin zituelako aldaketa horiek elkarrekin bizi izan ziren hemezortzi urteetan; batez beste, urteko etxe-aldaketa bat egiten zuten. Sei seme-alaba izan zituzten, eta horietako bat umetan hil zen. Horrenbestez, etxe-aldaketa bakoitzak zazpi laguni eragiten zien, eta bost seme-alabaren heziketari. Horrek erakusten digu margolariak zelako baldintzetan bizi behar izan zuen, horrek guztiorrek bere margotzeko gaitasunean eta koadroen neurrian eragin zuzena zeukalako.

Mugikortasun horren emaitza, 1894. eta 1913. urteen arteko epean, leku oso desberdinetako gaiak dituzten obren ekoizpena da. Denak Espainiako lekuak, Daxekoa, Donibane Lohitzunekoa eta Landetakoa izan ezik. Beste alde batetik, haren obran nabarmentzekoak dira gazteluak, elizak eta monumentuak, garai haren amaieran arkitektura historikoko obrak islatzeko gogoia sortu zitzaion eta. Pentsatzen zuen museoetarako eta bildumagileentzako interesgarriak izango zirela, eta, horrela, salmentak hobetuko zituela, baina bere



24. Darío de Regoyos (1857-1913)
Egunsentia Granadan, 1911
 Olioa mihisean. 49 x 32,5 cm
 Bilboko Arte Eder Museoa
 Inb. zenb. 82/145

integritatean atzera egin barik, izan ere, koadrootan arkitektura baten erreprodukzio hutsa baino gehiago dago. Motibo horien artean, besteak beste, hauek daude: Motako, San Vicente de la Barquerako eta Peñafieleko gazteluak, San Gregorioko ataria, Errege Katolikoek kaperak, San Millan de la Cogollako, Pobleteko eta Bugeedo de Juarroseko monasterioak, Sahaguneko, San Tirsoko eta San Lorenzoko estilo mudejarreko elizak, Burgoseko katedralari buruzko olio ugariak, etab.

Bilboko Arte Eder Museoa gai honi buruzko errepresentazio ona dauka, eta, jarraian, orain arte esandakoaren osagarri legez, azertu egingo dugu ordena kronologikoan.

Euskal Herrian egin zuen ibilbidearen eta bertako egonaldien emaitzak dira *Zezenak Pasaian* (1898) [6. ir.], *Lezoko eliza* (1898) [7. ir.], *Mirakruze bidea* (c. 1900) [9. ir.], *Urumea ibaia* (1904) [11. ir.] —lehenago ere aipatu ditugu—, *Aurrekuia euripean*, *Mondragonen* (1905) [12. ir.] eta *Bilboko itsasadarra* (1910) [23. ir.]. Horiek guztiak oso koadro garrantzitsuak dira daukaten egikeragatik, koloreagatik eta gaiengatik, baina bereziana *Urumea ibaia* da, tonu oso grisaxkak dituen zuzenaren erroka izugarria delako. Kasu honetan, margolariak, inpresionista ona zen neurrian, Donostiako bizimoduaren errealitatea jaso nahi izan zuen, egun hotz eta zakar batean. Horretarako, geltokira oinez zihoazen pertsonak eta geltokiaren aurrean zeudenak margotu zituen, baita geltokira bidaiariak eta zama zeramaten gurdia ere. Gizakiak erakutsi barik ere paisaia oso ederra izango litzateke, eta margotzeko errazagoa, baina egileak erabaki zuen ikusten zuen guztia margotu gura zuela. Eguzki gabeko eguna izan arren, zubiak uretan egiten zuen geriza ahulak ere bertan zeuden, eta uraren uhertasuna mugimendua irudikatzen erabili zuen. Era berean, eraikinen artean eta geltokiko markesinan geriza malbak agertzen dira, multzoari erliebea emateko. Erdiko mendiaren larra berdean kolore apur bat ere badago, elurte txikia dela adierazteko. Zubiko gorriak eta ibaiertzeko eta geltokiko okreek eta



25. Darío de Regoyos (1857-1913)
Mulhacéngo mendikatea. Izpi hitsa, 1911
 Olioa oholean. 26,6 x 35 cm
 Bilboko Arte Eder Museoa
 Inb. zenb. 82/142

marroiek osatu eta kolorea ematen diote koloreen leuntasunak eta harmoniak bikain bihurtzen duten obra honi. Azpimarratzekoak dira zubiaren isla gorrixkak dauzkaten aldaera urdinxkak, baita beheko ibarrean elur urgarriaren inpresioa lortzeko daukan egikera ere.

Aipatu beharreko beste koadroa *Bilboko itsasadarra* [23. ir.] da, Areetan bizi zenean margotutakoa. Neurri handiko obra da (49,1 x 208,5 cm) eta egikera inpresionistakoa. Bertan, itsasadarra ageri da iluntzean. Regoyosek, batez ere, haren jarduera eta ingurua jaso nahi izan zituen, eta itsasontziak, tranbia eta pertsona batzuk ere agertzen dira. Lehenengo planoak paseoa eta labore desberdinak dauzkaten partzela batzuk erakusten dizkigu. Labore horien kolore ugaritasunak aberastu egiten du obra. Bigarren planoan sakontasunez beteriko paisaia erakusten digu, zeru ezin hobearekin, iluntzea ondo baino hobeto erakusten duena. Regoyosek metro bi baino gehiagoko obra gutxi egin zituen, eta egindakoak enkarguz egindakoak dira, apaintzeko helburuarekin. Bestela, ez legoke justifikaziorik mihise honen eta neurri bereko beste batzuen neurrietarako.

Lermako Hiria [13. ir.] obran, 1906. urte ingurukoa (urte hartan behin baino gehiagotan egon zen bertan egilea), Regoyosek etxe zahar eta apal batzuk margotzea erabaki zuen, eta haien atzeko uharkako arbolak agertzen dira etxeon gaineratik, horizonte guztiz gaztelar batekin batera, lainoz beteriko zerua erakusten duen horizontearrekin. Regoyosek kalea bakarrik ez, pertsonak ere sartu zituen bere obran, baita etxeetan zintzilik zeuden elementuak ere. Gurago izan zuen eszena hau margotzea txaleteko beste gai ederrago batzuk baino. Hori horrela, esan dezakegu pertsonen ohiko bizimodua eta bitartekoen urritasuna margotzea interesetan zitzaiola, eta ez komentuarik edo jauregiak.



26. Darío de Regoyos (1857-1913)
Ripolleko paisaia, 1912
Olioa kartoian. 32,3 x 40,3 cm
Bilboko Arte Eder Museoa
Inb. zenb. 82/144

Denboran lehenagokoak diren aipaturako koadroez gainera, museoak badauzka Euskal Herrian eginiko beste bi ere, Durangaldean margotutakoak, hain zuzen ere: *Santa Luzia. Durango* [14. ir.] eta *Elorrio* [15. ir.]. Bata zein bestea 1907an margotutakoak dira, Durangon bizi izan zenean. Horietatik, *Santa Luzia. Durango* azpimarrratu behar da, guztiz inpresionista delako gaiari eta egikerari erreparatuta. Bertan, Regoyosek puntillismoa erabili zuen osagarri moduan, koloreak eta ehundurak lortzeko. Eszenaren erdigunea, argi eta geriza artean, Santa Luzia haitza da. Haitzaren gainean, parte batean, eguzkiaren isla ikusten da, eta belartzan ganadu-aldrak daude baserritarren begiradapean. Beste behin ere, margolariak bete egin zuen ikusten zuenarekin fidela izateko desioa.

Peñafielgo gaztelua [17. ir.] 1908an eginiko obra da, hiribildu hartara egin zuen bidaia artistiko batean. La Fonda del Comercio-n hartu zuen ostatua. Regoyos mendien igeltsu kolorearen eta eguzki-galdaren kexu zen. Berak gurago zuen horrenbeste argi barik margotu, ez Sorollak legez, eta harmonikoak presente egon arte itxaron, baina antza denez, hori ez zuen lortu obra honetan, dena argiz beteta agertzen da eta.

Merkatuaren amaiera Daxen [18. ir.] 1909ko martxoan margotu zuen, familia osoarekin batera bertara joan zenean osasun arazoaren eraginez. Hara joan ziren giroko umeltasunaren eta haize umeleko korronteen ondorioz katarrorik ez harrapatzeko. Abagune hori aprobetxatu zuen bere seme-alabek frantsesa ikas zezaten eta merkatuko eszenak margotzeko, izan ere, eszena horiek erakarri egiten zuten zeukaten interes sozialagatik. Obra honetan, esate baterako, iluntze bat agertzen da, eta bertako ertz bat gerizpean geratu da. Bertan, merkatuko jarduera jaso zuen, eta, bitartean, kalean eta espaloian jendea berbaz eta atseden hartzen dago.



27. Darío de Regoyos (1857-1913)
La Diagonal (Barcelona), 1912
 Olioa mihisean. 49,6 x 60,5 cm
 Bilboko Arte Eder Museoa
 Inb. zenb. 82/137

San Vicente de la Barquera. Hondarrak [20. ir.] eta *San Vicente de la Barquera. Gaztelua* [21. ir.] obrak 1910eko udan egin zituen, Ontanedan bizi zenean. Bertan bizi zenean, hainbat bidaia egin zituen Kantabrian zehar. Horietatik obretatik lehenengoa olio harrigarri bat da, daukan gaiarengatik. Ez dakigu zergatik ebatzi zuen hondarrak margotzea –izenburua egileak berak jarri zion—. Pintura hau izaera komertzialik gabeko obra multzo horretan sartzen da, izan ere, bere horretan, tonu urdinen eta berdeen arteko harmonia hutsa da. Beste mihisea gazteluaren ikuspegi bat da, iluntzean, eta erliebez beteriko argi eta geriza efektu bat dauka. Eraikin zahar historiko horren ehundura maisuki erreproduzitzen du, baita kokalekutzat daukan mendiko landaretza ere. Horri laino zuriz, urdinez eta malbaz beteriko zerua gehitu behar zaio, zeinak kontrastea egiten duen mendiko berdeekin eta okreekin. Hau da, kolorez beteriko paisaia lortzen du.

Museoak Regoyosek margotu zituen natura hil bietako bat ere badauka, *Natura hila* (1910) [22. ir.] izenekoa. Obra hau Regoyosen lagun Manuel Losada margolariarena izan zen, neurri handikoa da (66,5 x 81 cm), egikera inpresionista du eta Bilbon bizi izan zenean eginikoa da. Bertan, egurrezko landa-mahai bat margotu zuen, eta haren gainean hainbat elementu daude argiaren eraginpean. Zeramikazko pitxarra, baso bat ardo, ogi biribilaren zatia eta matizez beteriko hondoa nabarmentzen dira, ehunean zein horma zuri-urdinean.

1910eko urrian Regoyos eta bere familia Granadara joan ziren negua pasatzera, lehen ere aipatu ditugun osasun arazoan eraginez. Hiri hartan egon ziren harik eta 1911ko apirilean Bilbora bueltatu ziren arte. Hiri hartan egin zuen egonaldian hogeita hamar bat obra egin zituen, besteak beste, *Egusentia Granadan* [24. ir.] eta *Mulhacéngo mendikatea. Izpi hitsa* [25. ir.], 1911n margotutakoak. Bietako lehenengoa kalitate bikaineko obra da dituen koloreengatik eta egikeragatik. Bertan, Regoyosi jende xumeen bizimoduko eta ohituretako ohiko gai bat interesatu zitzaion. Eszenan, neguko goizalde bat, ama bat ageri da sehaskari era-

giten (aulkiaren zehartasunean ikusten da hori), gizon bat oiloei jaten ematen eta neska bat eguzkia hartzen. Regoyosek, gai komertzialetatik urrun, hiriaren kanpoaldeko etxe apal bat margotu zuen, landa eta arbolak atzean dituela. Gerizen luzera handiak goizean goizetik dela erakusten du. Nabarmentzekoa da etxe zaharra zelako fideltasunez margotu zuen, eguzki-argiaren eta haren gerizen ñabardura eta guzti, patioa (bertan daude pertsonak), ixten duen horma, ogia egiteko labea eta guzti, eta atzeko paisaia.

1912an, Bartzelonan bizi zela, gaur egun desagertuta dagoen Unibertsitate kaleko 15. zenbakian, *Ripolleko paisaia* [26. ir.] eta *La Diagonal (Bartzelona)* [27. ir.] obrak margotu zituen, lehenengoa Ripollera eta San Pedro de Torellora egin zuen bidaia artistiko batean. Koadro horretan, Ripollerako errepidearen eszena bakarti bat jasotzen da, egun gris batean hartuta inpresio arin bat, ibilbidea egiten zuten ibilgailuen geralekuetako baten alboan. Egikerak fideltasun osoz jasotzen du egun hartan zegoen atmosfera eta trafikorik eza, eta giroaren erabateko bakardadea erakusten du. Bigarren koadroa, bere obretan ohikoa zen legez, goitik hartuta dago irudia, mendiak eta Bartzelonako gainerako parteak ikusi ahal izateko perspektibaren bila. Seguruenik, etxetik margotuko zuen, Pedralbesetik hurbil zegoen-eta, Diagonalaren ondoan. Mihise horretan, Regoyosek erakusten digu etorbide garrantzitsu horrek urte hartan zelako jarduera zeukan, laino batzuek eguzkiaren distiraren intentsitatea mugatzen zuten egun batean erakutsi ere. Hori baldintza garrantzitsua zen berarentzat, horrela mendietan argiekin eta gerizekin jokatu ahal zuelako, eta beti bilatzen zituen harmonikoak erabili ahal zutelako, eta, horrela, eszenari sakontasun handia ematen zion. Horretarako, mendietan kolore ugaritasuna erabiltzen zuen, baita zeruaren urdinaren tonua eta laino sakabanatuen zuriena ere.

1913an, Bartzelonako Figuerola plazako 4.ean bizi zenean, bere osasun egoerak txarrera egin zuen, eta mi-hiko minbizia diagnostikatu zieten, baina berandu. Geroago, apirilean, eta haurdunaldian oso aurrera zegoen emaztearen laguntza gabe, Heidelbergera joan zen, era horretako gaixotasunetan espezializazio handia zuten medikuek artatu zezaten. Hiri hartan, Bayerischer Hof hotelean hartu zuen ostatu, baina medikuek erabaki zuten ezin ziotela ebaketa egin eta erradioterapia tratamendua baino ezin zuela hartu, ahal zen neurrian gaixotasunak aurrera egitea eragozteko. Regoyos, Bartzelonarako itzuleran, osasunez ahul zegoen arren eta minak zituen arren, Genevan geratu zen, eta, bertan, Heidelbergean ere egin zuen legez, koadro batzuk margotu zituen. Azkenik, hainbat hilabeteko sufrimenduaren ostean, barbarik ere egin ezinik, Bartzelonan hil ze urriaren 29an. Bizimodu artistikoa artearen askatasunari eskaini zion eta bere interesak ere askatasun horren alde sakrifikatu zituen.